

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Hitlerren panpina puzgarria



1940an Adolf Hitlerrek panpina puzgarriak ekoizteko proiektua jarri omen zuen martxan. Panpinak Käthe von Nagy (eskuinean, goian) aktorearen aurpegia izan zezan nahi zuten, baina hark uko egin zion. Xedea soldadu guztiei panpina bana ematea zen.

BERLIN, 1940. Adolf Hitlerrek gutun bat idatzi omen zion Olen Hannussen daniar doktoreari, enkargu berezia eginez: plastiko galbanizatuzko panpina baten prototipoa sortu behar zuen, gero Dresdeko fabrika batean seriean ekoiztuko zutena.

Alemania Bigarren Mundu Gerran sartuta zegoen. Soldadu bakoitzak panpina puzgarri bana jaso eta motxilan eramango zuen, bizirauteko ezinbestekoak zituen gainerako objektuekin batera. Hala, soldaduek beren behar sexuala aseko zuten, gaixotasun benereok hartzeko arriskurik gabe, eta beren odol garbia auskalo zer arraza kas-karrekin nahastu gabe.

Fürherrak mediku daniarrari bidalitako ustezko gutunean zioenez, “panpinak 1,76 metro neurtu behar du, bular handiak izan behar ditu, hankak, besoak eta burua artikulatuak, eta ongi diseinatutako zilborra”. Borghild izenez bataiatu zuten panpina, naziek hain gustuko zuten mitologia nordikoan oinarrituta. Eta, nola ez, ile horia, azal zuria eta begi urdinak izan behar zituen.

Borghild proiektuan eskultore batek, material sintetikoetako aditu batek, ile-apaintzaile batek eta

mekanikari batek parte hartu zuten. Giza azalaren egituratik ahalik eta hurbilen zegoen materiala lortzea zen erronka eta horretarako polimero bereziak garatu zituzten. Gorputzaren eredu gisa Wilhelmina von Bremen eta Annette Walter atletak erabili zituzten. Aurpegirako, aldiz, Käthe von Nagy aktorea aukeratu zuten, baina, diotenez, hark ez zuen baimenik eman. Soldadu alemaniar guztien eskutik pasatzea ez zuen gustuko, nonbait.

Azkenean, 1941ean altuera ezberdineko hiru panpina aurkeztu zituzten. Baina proiektua bertan behera geratu zen aliatuen hegazkin bonbaketariak Dresdeko fabrika suntsitu zutenean.

Informazio hau guztia 2005eko ekainean eman zen aditzera Alemaniako egunkari eta telebista kate nagusietan. Denek egiazkotzat jo zituzten Borghilden gorabeherak. Baina egundaino nazien ustezko panpina puzgarriak ez du inolako oinarri dokumentalik. Gainera, kontuan izan behar da berria argitaratzen lehena Alemaniako *Bild* egunkari sentsazionalista izan zela. Frogarik aurkitu ezean, Hitlerren proiektu estrategiko bitxia zalantzan jarri behar da, gutxienez. ■

ARRASTOAK

PATATA FRIJITUEN historiari eskainitako lehen museoa zabaldu dute berriki. Brujasen (Belgika) dago eta Friet Museum du izena. XIV. mendeko eraikina erabili dute museo berrirako. Batetik pataten manipulaziorako erabili izan diren 400 objektu biltzen ditu. Bestetik, patata frijituak azaltzen diren artelanak ere bildumaren barruan daude.

Orain arte, antzeko ekimen bakarra Anbereseko Fritkot Max dendan zegoen, hori ere Belgikan, patata frijituak bertan duten garrantziaren seinale. Patatak saltzeaz gain, hamasei metro koadroko gelatxo batean 150 argazki, pintura, eskultura eta marrazki erakutsi ohi dituzte.



Goiko argazkian, Brujaseko museo berriaren gaia, patata frijituak. Azpian, Anbereseko Fritkot Max, patatak saltzeaz gain museotxo bat ere baduena.